


Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Garagardo tsunamia



LONDRES, 1914KO URRIAREN 16A. Hiriburuko erdigunean uholde bitxia jasan zuten. Tottenham Court Road kalean, besteak beste Meux and Company Brewery garagardo fabrika zegoen. Fermentazio upel itzela zuten bertan, 22 oineko altuera zuten eta egun hartan 511.920 litro zeuzkaten gordeta. 29 metalezko uztaik eusten zioten upelari, baina mantentze kaxkarrak eraginda, edukiontzi erraldoia lehertu egin zen. Ondorioz, 8.500 upel hautsi eta guztira 1.224.000 litro garagardo isuri ziren bat-batean. Fabrikako horma hautsi eta Tottenham Courtetik behera St. Giles auzoraino iritsi zen tsunami berezia.

Kalte handiak eragin zituen olatuak. Besteak beste, bi etxe bota zituen. Tavistock Arms pubeko hormak ere behera egin zuten eta tabernaria hiru orduz egon zen azpian harrapatuta. Emakume hura ez zen hil, baina garagardo itsasoak bedertzi lagun berezia eraman zuten. Zortzi itota hil ziren; bedertzigarrena, ordea, intoxikazio etilikoak jota. Ez zuten inoiz horrenbeste garagardorik doan izango, eta aukera aprobetxatu nahi izan zuten nonbait.

Ez zen bakarra izan. Gaur egun Londresko gunerik garestienetakoa



Ezkerrean Meux garagardo fabrikak ekoizten zuen produktuetako baten etiketa. Lerro hauen gainean, Londresko Tottenham Court Road (Meuxen fabrika zegoen kalea) XIX. mende amaieran.

dena langile auzune txiroa zen XIX. mendean, eta St. Gileseko biztanleek etekina atera nahi zioten zorigaiztoko gertakizunari. Batzuek, azken hildako hark bezalaxe, garagardoa zuzenean edatea erabaki zuten, beste batzuek eskura zuten edozein edukiontzi hartu zuten ahalik eta garagardo gehien gordetzeko. Baina beharrak imajinazioa zorrozten omen du eta gutxi batzuek negozio beltza asmatu zuten. Hildakoren bat etxean gorde eta berau ikusteagatik sos batzuk ordainarazi zizkieten morbo bila hurbildutakoei. Berria berehala zabaldu zen hiri osoan eta bisitari uholdea etorri zen garagardoaren ondoren.

Meuxentzat, aldiz, negozio kaxkarrak izan zen. Milioi litrotik gora garagardo galtzeaz gain, ekoiztakoaren gaineko zergak ordaindu berri zituzten, eta ezbeharrak eragindako kalte-ordainen epaiketaren zain zeuden gainera.

Ziurrenik Londresko biztanle askok hainbatetan eskatuko zuten, euren ototzetan, garagardo erreka batean bustitzeko ametsa egia bihurtzea. Agian horrexegatik, agian garagardo konpainiak ordurako zigor gogorra jasoa zuelako, epaileek ez zuten Meux erruduntzat jo; "Jainkoaren ekintza" izan zela ondorioztatu zuten. ■

ARRASTOAK

LUCY munduko giza arrastorik ezagunena da seguruenik. Bizirik dauden izarrak bezalaxe, duela 3,2 milioi urte bizitako *Australopithecus afarensis* honek ere nazioarteko bira ugari egin ohi ditu. Berriki Etiopiako gobernuak neskatoaren hezurak sei urtez "uztea" erabaki du, AEBtako hainbat museotan erakutsi dituzten. Hainbat estatu-batuar adituk kezka adierazi du, horrenbeste joan-etorriekin arrastoak hondatzeko arriskua baitago. Etiopiarrek erabakia arrazoi ekonomikoengatik hartu dutela diote, Lucyren ordaintan jasoko dutenaren datu ofizialik ez egon arren. Ulertzeko da adituen kezka, baina ulertzeko da, modu berean, etiopiar agintarien erabakia, Afrikako herrialde horren egoera ez baita halako diru-sarrerei muzin egiteko modukoa.



Lucy Mexikoko erakusketa batean. Lehenago ere arrasto ezagunok bidaia ugari eginak dira, hezurren kontserbazio egokiaren kaltetan.